ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko otsailaren 6a, asteazkena • 16 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

# ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**39/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 30ekoa, onesten duena Arabako Foru Aldundiaren bulegoak irekitzeko ordutegia eta bulegoak ixteko egunak 2019rako**

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 66/2012 Erabakiak ezartzen du Arabako Foru Aldundiaren bulegoen eta erregistro presentzialen ordutegia –erregistro gaietako laguntza bulegoak, bat etorriz urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, xedatutakoarekin–.

Erabaki horrek xedatzen du funtzio publikoaren arloan eskumena duen diputatuaren foru aginduaren bidez ezarriko direla urtero foru aldundi honetan ordutegi bereziko egun izango direnak, eta foru agindu hori ALHAOn argitaratuko dela.

Bestalde, uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuak 10. artikuluan jasotzen duenez, Arabako Foru Aldundiko langileentzat, "Urteko lanaldiaren banaketa eta, horrenbestez, kasuan kasuko egutegiak langileen ordezkariekin adostuko dira; zerbitzu bakoitzaren beharrizan bereziak bermatuta geratu beharko dira. Egutegi horietan, jaiegun gisa aurreikusiko dira Euskal Autonomia Erkidegorako egutegi ofizialean jaiegun gisa ezarritako 14 egunak, lurralde historiko eta udalerri bakoitzerako ezarritakoak, eta, horiez gain, ekainaren 24a, abenduaren 24a eta 31"; arauz jasotako horrek ere isla izan behar du Foru Aldundiaren bulego eta erregistroen ordutegia arautzean.

Horiek horrela, kontuan harturik Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena, bai eta Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituena, eta Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 66/2012 Erabakiaren lehenbiziko paragrafoak esleitzen dizkidan ahalmenak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Egun eta ordutegi hauek ezartzea Arabako Foru Aldundiaren bulegoak eta erregistro gaietako laguntza bulegoak irekitzeko, 2019. urtean:

a) Ordutegi orokorra, astelehenetik ostiralera (jaiegun, ordutegi bereziko eta itxitako egunetan izan ezik): 08:15 – 14:30.

b) Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuaren bulegoen ordutegia (jaiegun, ordutegi bereziko eta itxitako egunetan izan ezik): astelehenetik ostegunera, 09:30 – 13:30; eta ostiraletan, 08:15 – 14:30.

c) Ordutegi berezia, bai bulego orokorretarako bai Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuaren bulegoetarako: 09:15 12:30.

2019. urtean hauek izango dira ordutegi bereziko egunak: abuztuaren 6a, 7a, 8a eta 9a eta irailaren 9a.

Bigarrena.- Bat etorriz 36/2017 Foru Dekretuarekin, bulegoak itxita egongo diren egun gisa ezartzea 2019rako, Lan eta Justizia Sailaren Arabako ordezkariaren 2018ko urriaren 15eko Ebazpenaren bidez jaiegun deklaratutakoez gain, ekainaren 24a eta abenduaren 24a eta 31.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hirugarrena.- Eskaintzen duten zerbitzua berezia delako, aurreko apartatuetan ezarritako jendearentzako ordutegitik kanpo geratzen dira honako hauek: Kultura Etxea, museoak, hirugarren adinekoen elkartegiak, basozainak eta beste zerbitzu berezi batzuk; horientzat, eskaintzen dituzten zerbitzuen araberako ordutegiak finkatuko dira.

Laugarrena.- Erabaki honetan ezarritako egunak eta ordutegiak kontsulta daitezke:

— elektronikoki, Arabako Foru Aldundiaren web atariaren bidez.

— aurrez aurre, Arabako Foru Aldundiaren edozein bulegotan.

— telefonoz, 945 18 18 18 zenbakira deituz.

Bosgarrena.- Salbuespenez, erabaki honetan araututakoez bestelako ordutegiak ezarri ahalko dira jendea atenditzeko, leihatilan egiteko jota dauden administrazio izapideetarako, herritarrak hobeto atenditu ahal izateko kanpaina jakin batzuetan. Kasu horietan, saileko diputatu titularraren berariazko baimena beharko da.

Seigarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 30a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta*
*Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
*CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR*

*Zerbitzu Orokorren zuzendaria*
*ANA DEL VAL SANCHO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.06 06:30:14 Z